



ENPRESA TRANSNAZIONALEN ETA GIZA ESKUBIDEEN EUSKAL ZENTROA

Enpresek nazioarteko
giza eskubideen
esparrua betetzeko
gune estrategikoa



Diseinua, maketazioa eta azala: Iñaki Landa

Argitaratze-data: 2021eko urria

Itzulpena: Belaxe, Koop. E.

Lizentzia: argitalpen honek Creative Commons lizentzia du:
Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 3.0 Espainia.

Ikus lizentziaren kopia hemen: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es>

SARRERA

Enpresa transnazionalen eta giza eskubideen euskal zentro bat sortzea aldarrikatzen du *Euskal Herriak Kapitalari Planto!* plataformak, zeina hainbat sindikatuk, gizarte- erakundek eta nazioarteko elkartasunerako elkartek osatzen baitute.¹

Gizartearen partaidetza bizia eta irmoa izango luke gune publiko berri horrek, eta egin-kizun hau: euskal enpresa transnazionalen atzerriko jarduerak eta inpaktuak arautzea eta haiei buruzko kontuak eskatzea, bai eta Euskadin dabilen atzerriko kapitalarenak ere, giza eskubideen nazioarteko esparruaren aldeko jarrera irmoa abiapuntu izanda.

Lehentasun politikoa du gai horrek, ikusirik zenbateko protagonismoa berenganatu duten enpresa handiek krisi-garai honetan,² non are bortitzagoa baita nazioarteko merkatuak atzitzeko eta atzerriko inbertsioak erakartzeko lehia. Egungo giro nahasiak areagotu egin du aipatutako protagonismoa, eta sortu duen gobernantza-ereduan erakundeek inongo baldintzarik gabe onartzen dituzte enpresen helburuak, interes orokorrekin bat omen datoze-lako. Hala, bada, esparru juridiko asimetriko

bat eratu dute, korporazioen interesak giza eskubideen gainetik jartzen dituen.

Asimetria horri esker, multinazionalak ez dute zertan aintzat hartu araudi gorena, hau da, teoriarik behintzat giza eskubideei dagokiena. Bestalde, hertsatzeko, galdatzeko eta justizia betearazteko giza eskubideek baino ahalmen askoz handiagoa du multinazionalak babes-ten dituen *lex mercatoriak* (merkataritza- eta inbertsio-itunak, doikuntza-planak, nazioarteko kontratuak eta abar) gizartea eta erakundeak geroz eta gehiago desarautzen ari diren testuinguru honetan.

Korporazioen boterea, krisia, muturreko lehia, sektore publikoaren eta enpresen arteko aliantza, araudi asimetrikoak: elementu horien guztien konbinazioak sortu duen errealtatean etengabe urratzen dituzte multinazionalak giza eskubideak mundu osoan. Hala frogatzen dute, hainbat gizarte-erakunderen salaketek ez ezik, Nazio Batuen eta nazioarteko beste erakunde ofizial batzuen txosten askok eta askok ere.

Beraz, lehenbailehen ekin behar zaio arazoa-ri, korporazioei protagonismoa kenduz eta gizarteko eta munduko gehiengoaren esku jarritz. Denoi dagokigun lehentasun kolektiboa

1. Erakunde eta elkarte hauek osatzen dute *Euskal Herriak Kapitalari Planto!*: ELA, LAB, ESK eta STEE-EILAS sindikatuak eta Ekologistak Martxan, Tradener, Komite Internazionalistak, REAS, Bizilur, Mugarik Gabe, Mundubat eta Paz con Dignidad-OMALek.

2. Enpresa transnazionala, multinazionala, enpresa handia eta korporazio handia terminoak erabiliko ditugu testu honetan, guztiek esanahi bera dutela, *Euskal zentroaren* ikergaiak mintzatzean. Txostenaren lehen atalean, termino horien azalpen zehatzagoak emango ditugu.

dugu, alor globaletik tokian tokikora jardutera bultzatu behar gaituena.

Gure ustean, *Enpresa transnazionalen eta giza eskubideen euskal zentroa* gune ezin egokia goa da —egungo eskumen-esparruan behintzat— giza eskubideak betearazteko alor estrategiko horretan; alegia, enpresen nazioarteko jardueran. Gainera, sektore publikoaren eta gizartearen arteko aliantza izango du oinarri, herritar antolatuei parte hartzeko eta erabakitzeko ahalmen berezia emango diena.

Txosten honetan zehaztu ditugu *Euskal zentroak* izan behar lituzkeen ezaugarri nagusiak, betiere irizpide honi jarraikiz: erakunde publikoen araubideak enpresen borondatearen gainetik egon behar du, korporazioei giza eskubideak betearazteari dagokionez.

Eztabaida politiko, sozial eta mediatikorako tresna ere izan behar du Zentroak, haren parametro nagusiak Euskal Autonomia Erkidegoko egungo araudietan zehaztu eta garatzeko oinarria. Laburbilduz, ekarpenak eta indarrak biltzeko gonbita da (enpresa-batzordeak, ekonomia sozial eta solidarioko erakundeak, ETEak, saltoki txikiak, gizarte-mugimenduak, sindikatuak, lurraren eta lurraldearen aldeko sareak, alderdi politikoak eta abar), premiazko eginkizun hau helburu dela: enpresei giza eskubideak betearazteko erregulazio-eremu bat sortzea Euskadin.

AURKIBIDEA

1. Euskal zentroaren testuingurua eta zergatia	6
1.1. Enpresa transnazionalak eta giza eskubideak: azterketa global bat	7
1.2. Enpresa transnazionalen erregulazioa: eztabaidagai bizia	10
1.3. Euskal zentroa: erronka estrategikoa	14
2. Euskal zentroaren ezaugarriak	21
2.1. Izaera juridikoa	21
2.2. Jarduera-eremua	22
2.3. Lehentasunezko helburuak eta eginkizunak	22
2.4. Egitura eta antolamendu-eredua	23

1. EUSKAL ZENTROAREN TESTUINGURUA ETA ZERGATIA

Sistematikoki urratzen dituzte giza eskubideak nazioarteko merkatuetan diharduten enpresa handiek, gobernantza-giroa euren interesen oso aldekoa duten krisi sakoneko egungo egoeran. Beraz, premiazko arazoa da gauzak aldatzea, gizartearen interes orokorra aintzat hartuta, eta bi jokabide hauen artean hautatzea: giza eskubideak betearaztea exijitzea ala korporazio handien borondatearen mende uztea eskubide horiekiko errespetua.

Borondatezkotasunaren gabeziak bistakoak direnez, maila guztietan ari dira agertzen erregulazioa-aldarrikapenak; hor ditugu, besteak beste, *Enpresen eta giza eskubideen gaineko hitzarmen loteslea*, 2014tik Nazio Batuetan eztabaidatzen ari direna, eta *Kataluniako enpresen eta giza eskubideen zentroa*, legealdi berri honetan berariazko lege baten bidez garatzeko parlamentuaren onspena duena. Honenbestez, maila anitzekoa bihurtu da jada «erregulazioa versus borondatezkotasuna» lehia, eta Espainiako Estatura eta Europara ere hedatu da. Europar Batasunean, bestalde, «arreta egokia» kontzeptua ari dira negoziatzen gaur egun. Gainera, enpresen nazioarteko jardueraren zenbait atali dagozkion geroz eta araudi gehiago ari dira sortzen estatuak:³ esklabo-lana, meatzaritza, zurgintza, ingurumen-arazoak eta abar.

Kapitulu honetan, lehia hori Euskal Herrian zertan den aztertuko dugu. Esan dezagun borondatezkotasuna dela nagusi hemengo azterketa, enpresa-jarduera eta politika publikoetan. Ez dago inongo planik edo sistematik EAEn zirkulatzen duen —eta EAetik zirkularazten den— kapital nazioartekotua kontrolatzeko eta ebaluatzeko. Beraz, egitura berri bat behar dugu, Euskadin eta Euskaditik maila globalean lan egiten duten korporazioen erregulazio publikorako.

3. Joan-etorriko ibilbidea izaten du enpresen nazioartekotze-prozesuak, zeinak jarduera hauek hartzen baititu: ondasunak eta zerbitzuak esportatzea, atzerrian jarduera industrialari eta/edo komertzialari ekitea eta atzerriko inbertsioak erakartzea.

1.1 Enpresa transnazionalak eta giza eskubideak: azterketa global bat

Lehen mailako nazioarteko eragileak dira enpresa transnazionalak gaur egun:⁴ ekonomia-kate globalen erdigunean daude; geroz eta gehiago kontrolatzen dituzte zenbait alor estrategikorekin lotura duten kultura-eremuak (informazioa, komunikazioa eta hezkuntza), eta arrakasta izan dute beren interesak gotortzen dituen gobernantza-eredu global bat ezartzeko ekinean.

Hain zuzen, eredu politiko horri esker saihestu dute multinazionalak giza eskubideei buruzko nazioarteko araudia ez betetzea, daukaten protagonismoa gorabehera (erakunde publikoei soilik dagokie, antza, betekizun hori). Multinazionalak «aintzat hartu» behar dute araudia, baina ez daukate zertan bete; beraz, giza eskubideak betearaztea bermatzen duten tresna juridiko lotsele irismenetik kanpo daude enpresa horiek, eta justizia, egia eta ordaina ez dituzte nahitaezko betekizun.

Bestalde, *lex mercatoria*ren aldeko eta giza eskubideen kalterako *araudi-asimetria* nabarmena tinkatu du enpresa handiek sustatutako eredu politikoak. Hona zer den *lex mercatoria*, gure ikuspegitik begiratuta: enpresa handien interesak irmoki babesten dituen nazioarteko araubide juridikoa, akordio komertzialez, inbertsio-itunez, doikuntza-planez, hitzarmenez, kontratuz eta abarrez osatua. Bereziki aipatzekoak dira inbertitzaileen eta estatuen arteko auzietarako nazioarteko arbitraje-sistema pribatuak. Hertsatzaileak izaten dira justizia pribatizatu moduko horren laudoak, estatuetako eta nazioarteko auzitegien irizpide, funts eta legitimotasunetik at jarduten diren arren.

Aitzitik, ez dago tresna juridiko eraginkorrik nazioz haraindiko jardura ekonomikoen inpaktu sozialak, ekonomikoak, lanekoak, ingurumenekoak eta kulturalak kontrolatzeko. Giza eskubideei dagokienez, betekizun hauek dituzte korporazio handiek: atzerriko inbertsioak erakartzearen desarautu eta malgutu diren araubide nazional soil batzuk, zeinek ez baitute gizarte-, zerga- eta ingurumen-baldintzarik. Gainera, araubide horietako askoren egitura judizialek eta administratiboek ez dute eskumenik euren xedapen juridikoak ere betearazteko. Bestalde, inondik ere ez

4. Hauek izango lirateke: «Herrialde jakin bateko legeriari jarraikiz sozietate nagusi batek eratutako enpresa-erakundeak, zeinak zuzeneko inbertsioen bidez kokatzen baitira beste herrialde batzuetan (harrerako herrialdeko legeriaren arabera sozietate gisa eratuz tokian tokiko sozietaterik edo filialik sortu gabe) eta estrategia komun bat baitute, ekoizpenari, lantegien kokapenari, komertzializazioari, finantzaketari, azpikontratazioari eta abarri dagozkion erabaki nagusiak hartzen dituen zentro korporatibo bat zuzendari dutela. Tipologia asko hartzen ditu barne ezaugarri-sorta horrek: jardura-sektore bereko taldeak, akzio-kapital partekatutako enpresak zuzentzen dituzten *holdingak*, jardura ugari eta era askotakoak dituzten enpresa-elkarteak...», in Hernández, Ramiro eta Gonzálezen definizioa (2012): *Diccionario crítico de empresas transnacionales*, Icaria, Bartzelona.

dute laguntzen *lex mercatoria* ahaltso horri aurre egiten ez giza eskubideen alorreko nazioarteko zuzenbidearen ahuleziak, ez [enpresen gizarte-erantzukizunak](#) (EGE), zeinaren ezaugarriak hauek baitira: borondatezkotasuna, aldebakartasuna eta galdadagarritasun juridikorik eza.

Araubide asimetriko horri esker metatutako boterea dela medio, enpresa transnasionalei ez die- te eragiten (edo apenas eragiten dieten) gizartearen eta botere publikoen kontrol-mekanismoek. Izan ere, beren negoziotarako ondoen datozkien araudi nazional eta internazionalak hauta di- tzakete, nazioz haraindikoak direlako, moldakortasun juridikoa dutelako eta egitura konplexuak baliatzen dituztelako. Beraz, zergetan, kontu-emateetan, gardentasunean eta gizarte-, lan- eta ingurumen-gaietan legeria onuragarriena duten herrialdeetara jotzen dute aipatutako enpresek.

Enpresa horien nazioartekotze-prozesuak inpaktu larriak eragin ditu gizartean, ekonomian, esparru politikoan, ingurumenean eta arlo kulturalan, mundu osoko gobernuz kanpoko era- kundeen, irakaskuntzako elkarten eta gizarte-mugimenduen ikerketa ugari agerian uzten du- tenez. Era guztietako eskubideen urratzeak dokumentatu dituzte lan horietan; eskubide zibil, politiko, ekonomiko eta kulturalak urratu dira, baita emakumeenak ere, eskubide kolektiboak, lan- eta ingurumen-alorretakoak... Hor daude, besteak beste, 2013an Bangladesheko Rana Plazako ehungintza-fabrika batean hildako 1.134 langileak (emakumeak, gehienak), 2021eko otsailean Tangerangko lantegi klandestino batean izandako 28 heriotzak, Ekuadorreko oihanean Chevron-Texaco konpainiak hamarkada luzez eragindako hondamendi ekologikoa, Volskwage- nen emisio kutsatzaileen iruzurra, eta Brasilen, Kolonbian, Guatemalan eta Espainiako Estatuan (besteak beste) aire zabaleko meatzaritzak eragiten dituen inpaktuak. Laginak besterik ez dira aipatu ditugun horiek, gehiengoaren eskubideen eta ongizatearen gainetik enpresa handien ira- bazia lehenesten duen jokabide orokor baten adibideak.

Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluko zenbait errelatore berezik ere aztertu izan dituzte, beren adierazpenetan eta urteroko txostenetan, multinazionalen giza eskubideen urratzeak, eta antzeko ondorioak atera dituzte, taula honetan ikusten denez.

1. TAULA. Transnationalei eta giza eskubideei buruzko Nazio Batuen bulego nagusiak

Urtea	Bulego Bereziaren txostena eta/edo hitzaldia	Ondorioak
2013	Herri indigenei buruzko errelatore berezi James Anayaren urteko txostena	Maiz, erauzketa-enpresa transnationalek ez dituzte aintzat hartzen indigenen eskubideak kontuan izateko arauak
2014	Osasun-eskubideari buruzko errelatore berezi Anand Groverren txostena	Patenteen, botiken eskuragarritasunaren eta osasun-eskubidearen bidez korporazio farmazeutiko handiek daukaten gehiegizko boterea salatu zuen
2017	Etxebizitza-eskubideari buruzko errelatore berezi Leilani Farharen txostena	Bankuen eta finantza-erakunde transnationalek gehiegikeriak dokumentatu ditu
2017	Elikadura egokia izateko eskubideari buruzko errelatore berezi Hilal Elverren hitzaldia	Giza eskubideak sistematikoki urratzeagatik Monsanto eta elikagaien sektoreko beste korporazio handi batzuk epaitu zituen auzitegi etikoaz mintzatu zen
2018	Nazioarteko ordena demokratiko baten sustapenari buruzko aditu independente den Alfred de Zayasen txostena	Desarautzearen eta enpresa transnationalek giza eskubideak urratzearen arteko lotura aipatzen du, eta alor horretarako nazioarteko tresna lotesle bat sortzeko premia aldarrikatzen

Iturria: egileak moldatua

Laburbilduz, enpresa transnationalek interesak herritarren oinarrizko eskubideen gainetik dauke, araudien eraginkortasunari dagokionez, arrazoi hau dela medio: giza eskubideen gaineko nazioarteko sistemaren berme urrien eta itun komertzialen zein inbertsioen arbitraje-mekanismo eraginkorren arteko asimetria nabarmena. Are gehiago egungo krisi-egoera larri honetan, inoiz baino biziagoa baita irabaziengatiko lehia.

Kasurik gehienetan, transnationalek jarduerak kaltetutako pertsonak eta komunitateak ez dituzte delituen biktimatza hartzen estatuen sistema prozesalean, enpresen erantzukizuna frogatzeko zailtasunen eraginez ezinezkoa izaten baita jazarpen judizialari ekitea. Eskubide-urratzen biktimek auzitegiara jo eta prozesu legalak martxan jartzen dituztenean, ez dute aurkitzen ez tipifikaziorik, ez mekanismo prozesal eraginkorrik; gainera, gehienetan ez dute edukitzen nahikoa baliabide ekonomiko eta profesional prozesu luze eta burokratikoetan jarduteko. Ondorioz, ez dute aukerarik izaten justiziaz baliatzeko eta jasandako kalte fisiko, material, kultural edo emozionalen ordaina jasotzeko.

1.2 Enpresa transnazionalen erregulazioa: eztabaidagai bizia

Duela bost hamarkada luze hasi zen eztabaida: [beren borondatez ala nahitaez aplikatu behar dituzte enpresek giza eskubideak bermatzeko arauak eta kontrol-mekanismoak?](#)⁵ Areagotu egin da eztabaida XXI. mendean, non enpresa handiek botere handia metatu eta nabarmen egin baitute aurrera hiru helburu lortzeko bidean: nazioartean dituzten interesak gotortzea, [merkataritza- eta inbertsio-itunen](#) bitartez; estatuetan, eskubide kolektiboak desarautzea eta jardunbide gisa enpresen erantzukizun sozialaren irismena zabaltzea. Halaber, kontrol eraginkorrik gabeko botere hori dela medio are nabarmenagoa da enpresa horien inpaktu kaltegarrien sistematikotasuna, baina enpresa transnazionalen erregulazio publikoa aldarrikatzen duten kontrako prozesuak ere eragin ditu hizpide dugun joerak.

Lehia horretan, enpresen borondatezkotasuna ageri da irabazle gaur egun —geroz eta gehiago jartzen bada ere zalantzan—, Nazio Batuek bultzatutako bi tresna hauei esker: *Global Compact* programa, 2.000tik indarrean dagoena, eta *Enpresei eta giza eskubideei buruzko printzipio gidariak*, Giza Eskubideen Kontseiluak 2011n onartuak.

[Global Compact](#) programak 160 herrialdetako 12.000 enpresa baino gehiago biltzen ditu, eta hamar printzipio generikoren borondatezko jokabide-kode baten jarraipena egitea du helburu. Giza eskubideak, ingurumena, lan-eskubideak eta ustelkeria sartzen dira jarraipen horretan. Gai hartan Nazio Batuen idazkari nagusi zen Kofi Annanek zioenez, hitzarmen hori «ez da tresna arautzaile bat; ez du zaintza-funtziorik, ez du irizpiderik ezartzen eta ez ditu ebaluatzen enpresen jokabideak eta jarduerak». Oso bestelakoak dira, bai, tresnaren ezaugarriak: «Enpresen erantzukizun publikoa, gardentasuna eta enpresen interesen babesa ditu oinarri». Orain arte, programa horrekin lotura duten enpresen 78.000 bat autoebaluazio argitaratu dira, baina gehiago korporazioen legitimazio soziala eta irudia hobetzearren egungo arazo globalak konpontzeko mekanismoak eta erregulazioak betearazteko baino.

Ostera, 2003an, nahitaezko araudi bat ezartzeko beste ahalegin bat egin zen Nazio Batuen Kontseiluan, baina borondatezkotasunaren printzipioa are sendotuagoa suertatu zen prozesu hartan, non [Enpresei eta giza eskubideei buruzko printzipio gidariak](#) onartu baitziren («*Ruggie printzipioak*» deritzenak, idatzi zituen ordezkari bereziaren abizenagatik). Hiru ardatz nagusi dituzte printzipioek. Lehenbizikoa, estatuek babestu egin behar dituztela herritarrak hirugarren

5. Borondatezkotasunari eta erregulazioari buruzko eztabaidaren azterketa historikoa eta sakonagoa ezagutzeko, ikusi Hernández, González eta Ramiroren *Empresas y derechos humanos: marcos regulatorios y propuestas*, OMAL.

batzuen giza eskubideen urraketatik. Enpresak ere hirugarren horien artean sartzen dira. Bigarrena, enpresa horiek aintzat hartu behar dituzte giza eskubideak, horretarako arreta egokia jarritz. Eta hirugarrena, hobetu egin behar dira giza eskubideen urraketen biktimek ordain eragin-korra jasotzeko bideak, judizialak eta estrajudizialak. 2012an argitaratu zen NBEren idazkaritza nagusiaren txostena, zeinak baitzioen *printzipio* horiek ez dakartela berekin inolako betekizun juridikorik, helburua giza eskubideak babestea eta betearaztea eta haien urraketak ordaintzea duten arren.

Orduz geroztik, enpresei eta giza eskubideei buruzko plan nazionalen bitartez⁶ ari dira aplikatzen estatuak tresna hori.⁷ Beraz, enpresen borondatezkotasuna eta autoebaluazioa suertatu dira garaile, erakunde publikoen kontrol eta ikuskaritzaren gainetik; «errespetatu, babestu, ordaindu» goiburua nagusitu da, giza eskubideak betearazteko eginkizunaren aurretik. Bestalde, babesgabezia erlatiboan geratzen dira giza eskubideen urraketen biktimak justizia eta ordaina jasotzeko aukerari dagokionez, araudi-asimetria ezin nabarmenago hori dela medio.

Europar Batasunak indartu egin nahi du paradigma hori, «arreta egokia»⁸ kontzeptu juridikoa baliatuz sofistikatuago bihurtzeko. ELGaren arabera, prozesu horren bidez identifikatzen, prebenitzen eta leuntzen dituzte enpresek inpaktu kaltegarriak (errealak eta potentzialak), eta nola aurre egin azaltzen. Europako Parlamentuak dio, bestalde, batez ere prebentziozko tresna dela, enpresak neurri proportzionalak hartzera behartzen dituena, faktore hauen arabera: kaltearen probabilitatea eta larritasuna, jarduera-sektorea, balio-katearen tamaina eta hedadura eta enpresaren tamaina. Beraz, onetsi eta arautu egiten du borondatezkotasuna, proposamen berri horren alderdi lotesleak ez baitira nazioartean giza eskubideak bermatzea xede duten tresna juridikoak edo berariazko egitura publikoak. Aitzitik, enpresa handiek prestatutako planak izango lirateke nahitaez bete beharrekoak, beraiek ezarritako baldintzen arabera, gainera.⁹

6. Europar Batasunean hamabost plan nazional onartu dira orain arte, honako herrialde hauetan: Erresuma Batua, Herbehereak, Danimarka, Finlandia, Suedia, Lituania, Italia, Alemania, Frantzia, Polonia, Belgika, Eslovenia, Txekiar Errepublikak, Irlanda eta Espainia.

7. Nazioarteko beste agiri batzuek ere indartu egin dute, harrezkerostik, printzipio gidarien ikuspegia; besteak beste, [ELGaren Lerro Gidariak](#) eta [LANEren Hiruko Adierazpenak](#).

8. Frantziak lehendik ere erabiltzen du antzeko kontzeptu bat —«zaintzeko betekizuna»— *Sozietate nagusiak eta enpresa kontratistak zaintzeko betekizunari buruzko Legean*, 2017an onartutakoan.

9. «Arreta egokia»-ren inguruko europar proposamenaren inguruan sakontzeko, ikusi Hernández, González y Ramiro (2021): [Diligencia debida, cuando la unilateralidad se vuelve la norma](#)

2. TAULA. Borondatezkotasuna versus erregulazioa eztabaida XXI. mendean: zenbait mugarri

Urtea	Tresna	Erakundea
2000	<i>Global Compact</i>	Nazio Batuak
2003	<i>Enpresa transnazionalen eta beste enpresa komertzial batzuen erantzukizunari buruzko arauak</i>	Nazio Batuak
2007	Ingurumenarekiko erantzukizunari buruzko legea	Espainiako Estatuak
2008	Ruggie txostena ("zaintza, errespetua eta ordaina")	Nazio Batuak
2011	<i>Enpresei eta giza eskubideei buruzko printzipio gidariak</i>	Nazio Batuak
2014	26/9 Ebazpena, «Giza eskubideei buruz enpresa transnazionalentzat eta beste enpresa batzuentzat nazioarteko tresna juridikoki lotesle bat sortzearen gainekoa»	Nazio Batuak
2014	Enpresa eta talde jakin batzuek informazio ez-finantzarioa eta aniztasunari buruzko informazioa hedatzearen gaineko zuzentaraua	Europar Batasuna
2014	Enpresen Erantzukizun Sozialari buruzko Espainiako estrategia	Espainiako Estatuak
2015	<i>Modern Slavery Act</i>	Erresuma Batua
2017	Gatazka-eremuetatik edo gatazka-arrisku handikoetatik eztainua, tantaloa eta wolframa, haien mineralak eta urrea inportatzen dituztenei hornidurakatean arreta egokiko betekizunak ezartzen dizkien araudia	Europako Parlamentua
2017	Jantzigintzaren sektoreari buruzko EBren ekimen enblematikoaren gaineko ebazpena	Europako Parlamentua
2017	Enpresen eta Giza Eskubideen Ekintza Plan Nazionala	Espainiako Estatuak
2017	Sozietate nagusien eta enpresa kontratatzaileen zaintza-betekizunari dagokion legea	Frantzia
2019	Haurren lanari buruzko arreta egokiaren legea	Herbehereak
2020	Giza eskubideei buruz enpresa transnazionalentzat eta beste enpresa batzuentzat nazioarteko tresna juridikoki lotesle bat sortzeko testuaren bigarren zirriborroa	Nazio Batuak
2020	Negozio Arduratsuak Ekimena (erreferendum bidez bota zuten atzera)	Suitza
2020	Enpresen eta giza eskubideen Kataluniako Zentroaren Legea (parlamentuko tramitazioa, onartua)	Katalunia
2021	Giza eskubideen eta ingurumenaren alorrean enpresei dagokien arreta egokiari buruzko zuzentaraua	Europako Batzordea

Iturria: egileak moldatua

Dena dela, etengabe aurkezten dira erregulazio-proposamenak, maila guztietan, gainera. Maila globalean, azpimarratzekoa da Nazio Batuetan [giza eskubideei buruz enpresa transnaziionalentzat eta beste enpresa batzuentzat nazioarteko tresna juridikoki lotesle](#) bat sortzeko ahalegina, 2014az geroztik negoziatzen ari direna. Bestalde, Europan ere eman dira zenbait aurrerapauso, erregelamendu eta zuzentarauen bidez, hainbat sektoretan (jantzigintzan, zurgintzan, mineralen arloan...) eta gardentasunean. Estatu mailan, berriz, erregulazioari dagokionez bereziki interesgarria da *Modern slavery act* lege britainiarra, egungo esklabotza, mendekotasuna, bortxazko lanak eta pertsona-trafikoaren ezabatzea helburu duena. Azkenik, globaletik tokian tokikorako ibilaldia amaitzeko, bereziki interesgarria deritzogu Enpresa eta giza eskubideen kataluniako zentroari, gu bultzatzen ari garen ekimenaren oso antzekoa baita.

Zentzu horretan, berriki onartu den Enpresen eta Eskubideen [Kataluniako Zentro bat sortzeko Legearen](#) proposamena urrats egokia da giza eskubideen alorrean araudi sendoa lortzeko bidean. Lafede.cat eta *Taula Catalana per la Pau i els drets humans a Colòmbia* elkarteek osatzen duten Kataluniako Enpresen eta Giza Eskubideen Taldearen ekimen politikoari esker onartu da hango Parlamentean proposamen hori, zeinak berekin ekarri baititu Zentroa martxan jartzeko bi ebazpen (2016an eta 2019an). Hona hemen lege-proposamenaren xedea: [zentro publiko independente](#) bat sortzea Kataluniako enpresek (Katalunian egoitza, jarduera edo inbertsioak dituztenek) beste herrialde batzuetan egiten dituzten jarduerak aztertu, ebaluatu eta kontrolatzeko. Besteak beste, funtzio hauek izango ditu Zentroak: Kataluniako enpresa transnaziionalen jarduera erregulatu, ikuskatu eta kontrolatzeko proposamenak sustatzea, giza eskubideei, lanaren nazioarteko zuzenbideari eta ingurumena babesteko eta bakea eta giza garapen jasagarria bultzatzeko araei dagokienez.

Laburbilduz, ikuspegi erregulatzaileraren balioa eta indarra balioesten dute Kataluniako zentroa eraikitzeko proposamenak eta eskala anitzeko gainerako ekimenek, gizarte demokratikoetan interes orokorrak interes pribatuaren gainetik egon behar duela aldarrikatuz. Halaber, enpresa handien jardueraren ondorio kaltegarriari aurre egiteko gizartean eta erakunde publikoetan dauden oztopo ugariak eta erantzukizun sozial korporatiboaren porrota ere nabarmentzen dituzte.

Eskari nagusiak laburbilduta, hona erregulazio eta kontrol publiko eta sozialeko proposamen horiek partekatzen dituzten hamar aldarrikapenak. EAEko eskumen-esparrura eta testuingurura egokitu ondoren, aldarrikapen horiek izango dira *Enpresa transnaziionalen eta giza eskubideen euskal zentroa* sustatzeko erreferentzia nagusia. Agiri honen bigarren kapituluan azalduko ditugu zentroaren funtsezko oinarriak.

1. KOADROA. Enpresen eta giza eskubideen eremua arautzeko erreferentzia-esparrua

1. Enpresa transnazionalak izatea aplikazio-eremu nagusia
2. Arau lotesleak sustatzea, borondatezko hitzarmenen gaineratik
3. Giza eskubideen lehentasuna berrestea, merkataritza- eta inbertsio-itunen aurretik
4. Enpresek atzerrian dituzten betekizunak zehaztea
5. Erakunde nazionalen eta nazioarteko enantzukizunak ere jasotzea
6. Enpresen eta haien zuzendaritzen nazioarteko enantzukizun bikoitza ezartzea
7. Aurrera egitea galdagarritasunari, auzigarritasunari eta gardentasunari dagokienez
8. Justizia eta ordaina eskuratzeko bideak hobetzea
9. Gizarte-eragile guztien partaidetza sustatzea, erregulazioaren sorreran, aplikazioan eta jarraipenean esku har dezaten
10. Kanpoko ebaluazio-mekanismoak erabiltzea

Iturria: egileak moldatua

Aldarrikatzen dugu, honenbestez, korporazio nazioartekotuak aztertzea eta galdatzea, ez edozein enpresa-mota; lehentasuna ematea erabaki lotesleei, borondatezkoen gaineratik, eta alor publikoari eta komunitarioari, pribatuaren aurretik, kolektiboki eta eraginkorki egin behar baitzaie aurre erronka globalei, egungo araudi-asimetria ezabatuz, ahal den neurrian; aldarrikatzen dugu, halaber, balio-kate osoan argitzea enpresen betekizunak eta erantzukizunak, hasi finantzaketatik eta azken produktu edo zerbitzuraino, barne direla aliantzak, filialak eta azpikontratak; kon-
tutak eskatzea, korporazioei ez ezik haien agendak eta jarduerak bermatzen eta/edo laguntzen dituzten erakundeei ere; azken batean, demokrazia-eremu berriak sortzea aldarrikatzen dugu, botere publikoen ikuskatze- eta ebaluatze-prozesuak susta ditzaten, eta justizia eta ordaina jasotzeko bideak erraztu.

1.3 Euskal zentroa: erronka estrategikoa

Oso bizia da enpresei eta giza eskubideei buruzko eztabaida beste ingurune batzuetan, baina EAEn ez da behar adina hitz egiten horretaz, nahiz eta enpresen nazioartekotzea «gure herriaren lehentasunetako bat» dela esan ohi den. Erakunde publikoek gaiari ematen dioten garrantzi eskasa da axolagabekeria horren arrazoi nagusietako bat. 2021a aurrera doa, baina EAeko erakunde publikoek ez dute argitaratu oraindik beren jarrerak azaltzen dituen inongo araudi edo planik,¹⁰ enpresei eta giza eskubideei dagokienez euren agentziaren nondik norakoak argitzen dituenik.

¹⁰ Giza eskubideei eta enpresei buruzko plan bat argitaratzea eta garatzea, [Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lan-
kideztaren IV. Plan Gidarian](#). Kendu egin zuten helburu hori [2021erako berariazko planetik](#), hau da, plan estrategikotik indarrean dagoen azkenekotik.

Aitzitik, geroz eta indar politiko eta aurrekontu handiagoak dituzte euskal enpresen nazioarteko-tzea (esportazioa, atzerrian kokatzea, inbertsioak erakartzea) sustatzeko estrategiek, politikek eta tresnek, hori baita erakunde publikoen lehentasuna. Beraz, enpresen lehentasunak berengantzen dituzte EAEko erakundeek (lehiakortasuna, merkatuak atzitzea, euskal korporazioen eskala-hazkundera, merkataritza- eta inbertsio-itunei laguntzea...), interes publikoak eta pribatuak bateratzen dituen sektore publiko eta pribatuaren arteko aliantzari jarraikiz eta giza eskubideen alorrean baldintza berezirik ezarri gabe.

3. TAULA. Enpresak nazioartekotzeko tresnak

EREMUAK	TRESNAK	EKIMENAK
Ondasunen eta zerbitzuen esportazioari laguntzea	Dirulaguntzak	Honetarako laguntzak (itzuli behar direnak eta ez direnak): Hastapena Produktu berriak Sendotzea Sustraitze produktiboa eta/edo komertziala Nazioarteko lizitazioak Enpresa-partzuergoak
Atzerrian finkatzeko laguntza ematea	Diplomazia ekonomikoa	Eragin politikoa eta lobbyak Ordezkaritza komertzialak eta/edo inbertsioak Aholkularitza Lehiatzeko adimena
Atzerriko inbertsioak erakartzea	Enpresen ahalmenak sendotzea haien jatorriko herrialdean	Giza gaitasunak (trebakuntza eta praktikak) Gaitasun teknologikoak (berrikuntza eta zentro adimendunak) Gaitasun ekonomikoak (kredituak, abalak, inbertsio estrategikoa, zerga-onurak)

Iturria: egileak moldatua

Hori guztia ikusirik, hona EAEko erakunde publikoen deskribapena: intentsitate apalez jarduten dira enpresei eta giza eskubideei dagokienez, eta intentsitate oso handiz enpresei nazioartekotzeko laguntza ematen. Implizituki onartzen dute, beraz, paradigma nagusia (borondatezkotasunarena), eta uko egiten diote nazioartean jarduten diren EAEko eta atzerriko enpresak erregulatzeko sistema orori, baita ebaluatu eta kontuak emanarazteko prozedurari orori ere.

Hori da, hain zuzen, egungo gabezia larrienetako bat: ez dago informazio publiko eskuragarririk enpresa horiek giza eskubideen alorrean nazioartean duten eraginaz, bistakoa den arren sistematikoki urratzen direla eta oso ahulak direla betearazpena kontrolatzeko tresnak.

Informaziorik eza eta araudiaren zein strategiaren aldetik ezer gutxi aurreratu izana abiapuntu harturik, azken urteotan enpresen eta giza eskubideen alorrean erakunde publikoek bultzatutako ekimen nagusiak jorratuko ditugu jarraian. Ikusiko duzue, batez ere erreferentzia erretorikoen eta borondatezkotasunaren aldeko jarrera nabarmenaren konbinazioa dira ekimen horiek.

- [Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako politiken koherentziarako erreferentzia-esparrua](#). 2016an aurkeztu zuen Urkullu lehendakariak agiri hori, zeinaren xedea baita giza eskubideak eta jasangarritasuna izatea Eusko Jaurlaritzaren politika osoaren erreferentzia, batez ere kanpo-harremanei dagokienez. Euskadiko GGKEen Koordinakundeak agiriari buruz egindako azterketaz baliatuta aurrerago jorratuko dugun bezala, erretorikotik gehiago du apustu horrek enpresen nazioartekotze-alorrerako jardunbide errealetik baino.
- [EAEko enpresa-nazioartekotze 2017-2020 plana](#), politika publikoaren ezaugarriak, helburuak, lehentasunak, eragileak eta aurrekontuak zehazten dituen funtsezko agiria. Giza eskubideei dagokienez, berriz, ez du haiek betearazteko inolako mekanismorik edo estrategiarik, 2030 Agendaren eta Global Compactaren aipamen generiko bana izan ezik.
- *Armen merkataritza eta esportazioa Euskadin. EAEko erakundearen eginkizuna gardentasuna hobetzeko, esportazioak kontrolatzeko eta aplikatu behar den esparru juridikoa betetzeko txostena*, Governance Gobernantza Demokratikoaren Institutuak 2019an egina, Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzarako Idazkaritza Nagusiaren aginduz. Txostenak ez du inondik ere aipatzen erakunde publikoek armagintzaren industria arautu edo kontrolatu behar dutenik. Aipatutako idazkaritzaren bermea dute txostenaren ondorioek. Aldiz, borondatezko kode etiko bat sustatzen du, eta betearazteko laguntza publikoak ere proposatzen ditu.¹¹
- [Migraziorako euskal itun soziala](#). Arrazakeriari eta xenofobiari aurre egiteko berehalako plan baten premia dagoela berriaz onartzen du agiri horrek. Alabaina, gabezia nabarmenak ageri ditu politika publikoak garatzeko konpromiso espezifikoak dagokienez, eta adierazpen erretorikoa da, batik bat. Esate baterako, enpresen nazioartekotzeari soilik gagozkiola, ez da inondik ere aipatzen multinazionalen jardunak eragiten duen bortxazko migrazioa. Saihestu

11. Ongi Etorri Errefuxiatuak erakundeak txostenaren [balorazio kritikoa](#) egin zuen, partekatzen dugun logika horren barruan.

egiten da, beraz, migrazioen eta enpresen nazioartekotzearen arteko lotura oro eta, horrenbestez, baita horri buruzko azterketa- eta erregulazio-estrategia oro ere.

- Euskadiko Enpresen Nazioartekotze Agentziak, *Basque Trade&Investmentek*, argitaratutako [azterketak eta txostenak](#), zeinen helburua ez baita —inondik ere— enpresei giza eskubideak betearazten laguntzea edo horretara bultzatzea, baizik eta egoerak aztertzea eta «merkatu-aukerak bilatzea».

Beraz, ez Eusko Jaurlaritza ez foru-aldundiak ez dira irmoki bultzatzen ari enpresei eta giza eskubideei buruzko eztabaida irekia, zalantzarik ez badago ere euskal enpresak nazioartera ateratzeko borondateaz, sektore publikoaren eta pribatuaren arteko aliantzen bidez enpresak beren helburuetara biltzeko gogoaz. Azken urteotan, zenbait gizarte-erakunde ari dira eztabaida hori bultzatzen, kapital transnazionala erregulatzearen premia aldarrikatzen duten alderdi politiko batzuekin batera. Hona helburu hori lortzearren bultzatutako zenbait ekimen:

- Giza eskubideak urratu dituzten enpresei buruzko geroz eta salaketa gehiago jasotzen eta argitaratzen dituzte hainbat euskal gizarte-erakundek. Hona hemen adibide batzuk: zenbait komunitate eta mugimenduren kexak Saudi Arabiak Yemen bonbardatzeko ehiza-hegazkinen fabrikazioan IPT Aerok izan duen esku-hartzeagatik; Iberdrolaren megaproiektu eolikoak Mexikoko Tehuantepeceko istmoan eragin dituen kalteak, eta Brasilgo Belo Monteko urtegiak sortu dituenak; BBVAren jokabidea, industria militarra finantzatzen baitu, bai eta zenbait megaproiektu ere (esate baterako, Kolonbiako Hidroituangoko urtegia, ondorio ekologiko eta sozial larriak eta indarkeria handia eragin dituen); Sener enpresak Kolonbian Bogota hiriko metro berriaren eraikuntzan duen esku-hartzea, non ugariak izan baitira ustelkeria- eta klientelismo-salaketak; Prosertek enpresak Planta de Regasificación del Pacífico Colombiano konpainiaren lan-prekarizazioan duen erantzukizuna; Amazonen Trapagaraneko langileen lan-baldintzak; Tel Aviveko tranbiaren eraikuntzan (legez kanpo okupatutako lurraldeetan) CAFek izan duen esku-hartzea, eta oraindik deskolonizatzeko dagoen Mendebaldeko Saharan Siemens-Gamesa egiten ari den lana.
- 2019an, giza eskubideen aldeko Argituz erakundeak diagnostiko bat argitaratu zuen,¹² non arreta egokiaren ikuspegitik begiratuta giza eskubideen alorrean euskal enpresek duten jokabidea aztertzen baitzuen. Diagnostikoaren emaitzek erakusten dutenez, giza eskubideei ez diete garrantzi handirik ematen euskal enpresek beren ohiko jardueran. Azterketaren on-

12. 2019ko ekainaren 18an Euskadiko Artxibo Historikoan, Bilbon, egin zen *Enpresei eta giza eskubideei buruzko elkarrizketa- eta gogoeta-foroan* aurkeztu ziren ondorioak. 2013tik 2016ra bitartean eginiko aurrediagnostikoa, 40 enpresako lagin bat aztertuta. Era guztietakoak ziren enpresak, eta batzuk nazioartean jarduten dira (Txinan, Indian, Kolonbian, Mexikon, Brasilen...).

dorioen arabera, enpresen % 7,5ek bakarrik ditu giza eskubideak kudeatzeko protokoloak edo sistemak; bestalde, % 7k bakarrik egiten ditu hornitzaileen jarraipen-auditoriak erantzukizun sozial korporatiboa eta giza eskubideak direla eta; prezioa da adierazle nagusia erabakiak hartzean, eta enpresa publikoen % 5ek bakarrik ezartzen ditu gizarte- edo ingurumen-baldintzak, eta batek ere ez du aplikatzen giza eskubideei buruzko berariazko estrategiarik sistematikoki urratzen diren herrialdeetan, ezta gaia jorratzen ere herrialde horien gaineko trebakuntza- edo informazio-saioretan.

- 2017az geroztik, urtero antolatzen du Gernika Gogoratuzek [bakearen ekonomiari, giza eskubideei eta euskal enpresei buruzko laborategi](#) bat, zenbait eragilerekin elkarlanean, alor estrategiko horretan eztabaida sakontzearren.
- Euskadiko GGKEen Koordinakundeak bi txosten argitaratu ditu, non [2014-2019 epeko Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien enpresa-nazioartekotze politika](#) aztertu baitu, atzerri-politikan giza eskubideak eta jasangarritasuna lehenesteko Eusko Jaurlaritzaren berariazko asmoari jarraikiz. Oso labur adierazita, ondorioei erreparatuz, helburu horretara ez gara hurbiltzen ere ari. Izan ere, baditu beste lehentasun batzuk politika horrek, giza eskubideen aurretik: lehiakortasuna, nazioartekotzea, merkatuak atzitzea, era guztietako inbertsioak erakartzea (inolako baldintzarik gabe) eta ETEak enpresa transnazional bihurtzea. Aldiz, bigarren mailakoak dira gizarte-klausulak; ez dago ingurune konplexuetan (Mexiko, Kolonbia, Txina, lehentasuna duten herrialde batzuk bakarrik aipatzearren) giza eskubideen alde egiteko inolako estrategiarik; klima-aldaketarekin lotura estua duten sektoreak bultzatzen jarraitzen dute (gasa, petrolio, automobilgintza); sektore publikoaren eta pribatuaren arteko aliantzek zehazten dute eragileen jardura-eremu erabat estua (azpimarratzekoa da merkataritza-ganberek politika horren planifikazioan eta aplikazioan duten esku-hartzea) eta, jada aipatu dugunez, ez dago inolako kontrol-egiturarik eta fede-ekintza bat balitz bezala onartzen da euskal enpresen berezko ontasuna. Azkenik, gomendio batzuk ematen dira *Enpresen eta giza eskubideen euskal zentro* baten sorreraz. Agiri honetan proposatzen dugunaren antzekoa da balizko zentroa.

4. TAULA. Enpresa-nazioartekotze euskal politikaren 19 ezaugarri

ERAGILEAK
1. Ekonomia-garapenerako sailak, herri mailako egitura instituzional baten oinarri
2. Sektore publikoaren eta pribatuaren arteko aliantza da lehentasunezko antolamendu-formula
3. Basque Consortium, esparru publikoa eta enpresa arlokoa uztartzen dituen herri mailako egituraren koordinazio-gunea
4. Atzerri-gaietarako erakunde autonomikoak, eragile ahulak
5. Gizarte-eragileek oso bigarren mailako esku-hartzea dute enpresa-nazioartekotze politikan
IKUSPEGI ESTRATEGIKOA
6. Eusko Jaurlaritzak gidatzen du strategiaren zehaztapena
7. Agenda korporatiboa da EAEko nazioartekotze politikaren erreferentzia hegemoniko eta koherentea
8. Ahula eta partziala da giza garapen jasangarriaren aldeko ekina
9. Irizpide tekniko eta enpresarialen arabera ezartzen dira lehentasun geografikoak
10. Hainbat alorretara (batzuk oso kalteberak) zuzendutako lehentasun sektorialak
11. ETEak dira lehentasunezko eragileak, eta enpresa "multikokatu" izaten laguntzen zaie
12. Aurrekontu handia, baina erabakimen urrikoa
TRESNAK
13. EAEko tresna-esparrua: integrala, eta sektore publikoaren eta enpresen arteko aliantzari lotua
14. Ibilbideak garatzeko Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien arteko osagarritasuna eta dibertsifikazioa
15. Dirulaguntzen bidez enpresa-nazioartekotze politikara bideratutako funtsen garrantzia
16. EAEko tresnen esparrua, agenda korporatiboarekin bat
17. Irizpide soziokulturalen erabilera, urria, minoritarioa eta euskal esparrura mugatutakoa
18. Ez dago ez ebaluazio-sistemarik, ez kontu-ematerik
19. EAEra inbertsioak erakartzea, korporazioen hedapen globalaren zerbitzura dagoen politika

Iturria: Euskadiko GGKEen Koordinakundea

- Jasotako salaketa sozial sistematikoak eta GGKEen Koordinakundeak argitaratutako ondorioen azterketak ikusirik, Euskal Herria Bilduren eta Elkarrekin Podemosen talde parlamentarioek *legez besteko proposamen* bana aurkeztea erabaki zuten, 2017an eta 2019an, *Enpresen eta giza eskubideen euskal zentro* baten sorrera bultzatzeko, haren bidez erakunde publikoek korporazioen jardura kontrolatu eta erregulatu dezaten. Atzera bota zituzten proposamen biak EAJK, PSE-EEk eta PPK, baina aurkezpenak ibilbide luzeko eztabaida parlamentarioa jarri zuten martxan.

Laburbilduz, erakunde publikoek ez dute apenas informaziorik ematen, ez dute araudirik eta estrategiarik garatzen, eta —esplizituki nahiz inplizituki— ez dira mugitzen borondatezkotasunaren eremutik. Alabaina, euskal gizarte zibil antolatuak bere gain hartu du enpresen eta giza eskubideen gaiaren lidergoa, eta, eztabaida areagotzea ez ezik, enpresen erregulazio eta kontrol demokratikoaren bidean aurrera egitea ere erabaki du.

Hain zuzen, *Enpresa transnacionalen eta giza eskubideen euskal zentro* bat sortzeko gure proposamen honek bil dezake nahikoa indar giza eskubideen alde egiteko euskal enpresak nazioartekotzeko edozein ekimenetan. Eginkizun hauek izango lituzke aipatutako zentroak: informazioa ematea, kontuak eskatzea, ikuskapen publikoak egitea eta politika-aldaketak proposatzea, baita zigorrak ere giza eskubideei buruzko nazioarteko araudia betetzen ez dutenei.

Euskal zentro bat sortzea ez da ahuntzaren gauerdiko ametsa, baizik eta nazioarteko prozesu luze baten azken emaitza. 2014an hasi zen prozesua, urte hartan argitaratu baitzuen [Herrien ituna](#) deritzona «Korporazioen boterea suntsitu eta zigorgabetasuna amaiarazi» kanpaina globalak. Mundu osoko 200 bat gizarte-mugimendu, elkartasun-sare, giza eskubideen aldeko erakunde, tokiko komunitate eta herritar biltzen ditu ekimen horrek. Nazio Batuetan hitzarmen lotesle bat lortzeko oinarri gisa erabili zen gerora Ituna, non jada aipatzen baitzen «enpresa transnacionalen jarduerak aztertu, ikertu, ikuskatu eta kontrolatzeko zentro publiko baten sorrera». Eskaera horrek indarrean dirau oraindik ere Nazio Batuetan.

Hala, bada, testuinguru bikoitz horretan (NBEren jardun instituzionala, batetik; estatuen zein estatuz azpiko erakundeen proposamenak, bestetik) kokatzen da *Enpresa transnacionalen eta giza eskubideen euskal zentroa*, betiere giza eskubideei lehentasuna emanez, korporazioen boterearen gainetik.

2. EUSKAL ZENTROAREN EZAUGARRIAK

Kapitulu honetan jorratuko ditugu *Enpresa transnazionalen eta giza eskubideen euskal zentro* bat eratzeko gure proposamenaren ezaugarriak. Lau ezaugarri hauek landuko ditugu bereziki: Zentroaren *izaera juridikoa*, hau da, non eta nola kokatu behar den egungo organigrama instituzionalean; *jarduera-eremua* (Euskadin eta Euskaditik jarduten diren enpresa transnazionalak, soilik); *lehentasunezko helburuak*, proposamen osoaren oinarri diren irizpideei jarraikiz (erregulazioa, kontrol publikoa eta demokratikoa); azkenik, *egitura eta antolakuntza-eredua* (lan- eta erabaki-eremu nagusiak, eta erakunde publikoen eta gizartearen arteko lankidetzaren bermatzen duen formula).

Euskal Herriak Kapitalari Planto! plataformaren eta enpresen eta giza eskubideen alorrean diharduten beste euskal erakunde batzuen eztabaida biziaren emaitza ditugu ezaugarri horiek. Gaiari buruz egindako zenbait ikerketaren proposamenak ere jasotzen ditu (Argituz eta Euskadiko GG-KEen Koordinakundea). Azkenik, Katalunian bultzatzen ari diren prozesu paraleloa ere funtsezko erreferentzia dugu: erregulazio-eremuak sustatzeko antzeko ikaskuntzak eta ahaleginak partekatzen ditugu, egoera desberdinak bizi arren antzeko diagnostikoak eta asmoak baitituzte erkide.

Sarreraren genioenez, aipatutako parametroak dira *Euskal zentroaren* funtsezko ardatza. Eztabaida sozial, politiko eta mediatikoak ekimen legegile bat bultzatzen badu, aldatu, zabaldu eta zehaztu egin beharko dira parametro horiek, erakundearen behin betiko sorrerari ekiteko.

2.1 Izaera juridikoa

Organismo publikoa da *Enpresa transnazionalen eta giza eskubideen euskal zentroa*, nortasun juridiko propioa eta alor publikoan zein pribatuan jarduteko ahalmen osoa duena, eta administrazio publiko, erakunde pribatu eta irabazi-asmorik gabeko erakundeekiko independentzia osoz jarduten dena.

Zuzenbide publikoko erakundea da, baina ez Euskadiko Administrazio Orokorraren mendekoa, eta gizarte zibilari, Eusko Legebiltzarrari eta Eusko Jaurlaritzari aurkezten dizkie kontuak. Legez, dekretuz eta erregelamendu propio baten bidez garatuko ditu bere eginkizunak.

Analogia administratibo bat egitearren, EAeko [Kontseilu Ekonomiko eta Sozialaren](#) antzeko posizioan egongo litzateke Zentroa organigrama publikoan, oso bestelako funtzioak dituela bai-

na berme paretsuak beren eginkizunetarako (dagokigun kasuan, euskal enpresen nazioartekotzean jarduteko).

2.2 Jarduera-eremua

Jarduera eskusiboa du *Enpresa transnazionalen eta giza eskubideen euskal zentroak*, hots, Euskaditik eta Euskadin diharduten enpresa transnazionalak ikuskatzen, ebaluatzen, kontrolatzen eta erregulatzen ditu, eta haien kontuak eskatzen.

Jarduera-eremua, berriz, hau du: egoitza nagusia Euskadin duten enpresek hirugarren herrialdeetan duten jarduna, bai eta Euskadin diharduten kapital nagusiki atzerritarreko korporazioena ere. Hartara, enpresen nazioartekotze-kontzeptuari dagokion alor osoa hartzen du: ondasunen eta zerbitzuen esportazioa, atzerriko kokapen komertziala eta/edo produktiboa, eta atzerriko inbertsioen erakarpina.

Nazioartekotutako enpresen gaiari ekiteko erreferentzia gisa, inongo zalantzarik gabe onartzen da giza eskubideei buruzko nazioarteko araudia, barne direla lanerako eskubidea eta ingurumenari, bakearen sustapenari, giza garapen jasangarriari eta nazioarteko zuzenbide humanitarioari buruzko nazioarteko arauak.

2.3 Lehentasunezko helburuak eta eginkizunak

Zehaztutako jarduera-eremua oinarri harturik, indarrean den eskumen-esparrua kontuan izanik eta kontrol publiko eta demokratikoaren irizpideei jarraikiz, hauek dira *Enpresa transnazionalen eta giza eskubideen euskal zentroaren* helburu eta eginkizun nagusiak:

1. Giza eskubideen *uraketan salaketak jasotzeko eta aztertzeko prozedura protokolizatzea eta sistematizatzea*, funtsean eta forman, atzerrian diharduten EAEko enpresek eta Euskadin diharduten kanpoko korporazioek esku hartzen dutela.
2. *Sakon aztertzea –protokoloari jarraikiz eta ikuskaritza publikoko ikuspegi batetik–* giza eskubideen urratzeak direla-eta beste herrialde batzuetako erakunde publiko zein sozialengandik eta komunitateengandik jasotako salaketa sinesgarriak, betiere euskal enpresen esku-hartzerik izan bada urratze horietan.
3. Euskadiko atzerriko inbertsioen inguruan aurkeztzen diren salaketak *EAEko kasuan kasuko erakundeetara bideratzea*.

4. *Euskal enpresen eta Euskadin inbertitzen den atzerriko kapitalaren jarduera ebaluatzea eta EAEko eta nazioarteko gizarteari horren berri ematea, bai eta korporazio horiek jasotzen duten laguntza instituzionalari buruzkoa ere, ikuspuntu orokor (nazioarteko araudiaren arabera) zein espezifikotik (sektoreak, testuinguruak eta/edo ekimen zehatzak).*
5. *Euskal enpresen nazioartekotzearekin zuzeneko edo zeharkako lotura duen edozein ekimen legegile, dekretu edo erregelamenduren berri nahitaez ematea.*
6. *Aldaketak proposatzea euskal enpresen nazioartekotzearekin zuzeneko edo zeharkako lotura duten politika publikoetan.*
7. *Ekimen legegileak proposatzea euskal enpresak nazioartekotzearen alorrean.*
8. *Garrantzi bereziko kasu protokolizatuetan, laguntza juridikoa eta psikosoziala ematea salaketak jarri dituzten pertsona, komunitate eta erakundeei.*
9. *Zigorak proposatzea nazioarteko jarduera-eremuan giza eskubideak urratzen dituzten enpresen aurka.*

2.4 Egitura eta antolamendu-eredua

Izaera publikoa du *Enpresa transnazionalen eta giza eskubideen euskal zentroak*, baina erabakitze formula partekatu bat proposatzen du, erakunde publikoen eta gizartearen arteko aliantza bideragarri egingo duena.

Bere egitura guztietan gizonen eta emakumeen portzentaje parekidea bermatu behar da, baita erakunde publikoetako (Eusko Jaurlaritzako eta foru-aldundietako) eta gizarteko ordezkariena ere Zentroaren gobernu-organoan. Gizartearen partaidetzari dagokionez, orekatua izan behar du: % 33na inguru sindikatuek, GGKEek, eta gizarte-erakundeek zein ekonomia solidariokoek.

Korporazioek eta haiek partaide dituzten ganberek eta ugazaben elkarte eta partzuergoek ezin dute ordezkari izan organo erabakitzaile horietan, *Euskal zentroaren* ikergai izaki. *Aholku-batzordean* soilik izango lukete ordezkari izateko erakunde horiek.

Ikuspegi publiko eta sozial hori oinarri duela, autonomia organikoa du *Euskal zentroak*, eta bere lege propioaren, bere erregelamendu organikoaren eta barne-antolamendu eta -funtzionamendurako arauen arabera jardungo da.

Baldintza horiek aintzat harturik, lau organo nagusi izango ditu *Euskal zentroak*:

- a) *Gobernu-batzordea*: gobernu-, zuzendaritza- eta administrazio-organoren gorenak, erabaki estrategikoen arduratuko dena (plan estrategikoa eta urteko plana). Hamaika lagunek osatuko dute, lehen aipatu ditugun partaidetza parekideko baldintzei jarraikiz. Lau urtean behin partzialki berrituko da eta kideek gehienez ere bi ekitaldi egingo dituzte.

Batzordeko kideak hautatzeko irizpideei dagokienez, izen handiko pertsonak izango dira, giza eskubideen inguruko gaietan adituak edo alor horretako gizarte zibil antolatuari lotuak, eta esperientzia profesionala izango dute nazioarteko zuzenbide publikoan, nazioarteko harremanetan, gatazkak indarkeriarik gabe konpontzeko bideetan, laneko zuzenbidean eta demokrazia zein giza eskubideekiko errespetuan.

Gehiengo sinplez hartuko dira erabakiak. Gobernu-batzordearen bileretara joango dira *Euskal zentroaren* zuzendaritza eta langileen ordezkari bat, hitzarekin baina botorik gabe. Zuzendaritzak izendatzen duenak egingo ditu idazkari-lanak.

- b) *Zuzendaritza-batzordeak* hautatuko du zuzendaria (pertsona bakarreko kargua), zeinaren eginkizunak hauek izango baitira: helburu estrategikoak betearaztea, lantaldea kudeatzea eta *Euskal zentroa* administratzea.

Zuzendaritza-batzorderako irizpide bertsuak erabiliko dira zuzendaria aukeratzeko, baina planifikazio estrategikoan, enpresen nazioartekotzean eta lantaldeen kudeaketa eta administrazioan dituen esperientzia eta gaitasuna ere hartuko dira kontuan.

Gehienez ere zortzi urtez egongo da karguan zuzendaria.

- c) *Aholku-batzordea*, berriz, zortzi lagunek osatuko dute, Katalunian eta nazioartean dihardutenak eta gai hauetan adituak direnak: kanpo-harremanetan, enpresen nazioartekotzean, giza eskubideetan, generoan eta ingurumen-jasangarritasunean. Ezin da izan aldi berean aholku-batzordeko eta gobernu-batzordeko kide. Gehienez ere zortzi urtez egon daiteke batzordean.

Gobernu-batzordeak izendatuko ditu aholku-batzordeko kideak, irizpide hauei jarraikiz:

- Irakaskuntzaren eremuko bi lagun, gai hauetan esperientzia dutenak: enpresa transnacionalen giza eskubideen nazioarteko esparru juridikoaren betearazpenean, nazioarteko lan-zuzenbidean eta nazioarteko ingurumen-arauetan, bakearen sustapenean eta giza garapen jasagarrian.

- Euskadiko alor juridikoko profesionalen artean hautatutako bi lagun, giza eskubideetan adituak biak ere.
 - Ospe eta aintzatespen sozial handiko bi lagun, giza eskubideak, feminismoa eta justizia soziala, ekonomikoa eta ingurumen-arlokoa sustatzeko ahaleginetan nabarmendu direnak.
 - Nazioarteko merkataritzan eta inbertsioan adituak diren bi lagun, ugazaba-elkar-teek, ganberek, partzuergoek eta Euskadin egoitza duten enpresek proposatuak.
- d) *Lantaldea*: publizitatean, lehian, merituan, berdintasunean eta gaitasunean oinarritutako printzipioen arabera hautatua. Lan-kontratudun langileak izango dira.

Euskal zentroaren lan-ildoak jorratzeko eta helburuak lortzeko behar adinako prestakuntza izan behar du taldeak alor hauetan: administrazioan, gai juridikoetan, ikuskaritzan, peritatze publikoan eta komunikazioan.

Horiek dira, labur azalduta, *Enpresa transnazionalen eta giza eskubideen euskal zentroa* bultzatzeko eztabaidarako oinarrizko parametroak. Gure ustean, hori da aurreko kapituluari aipatu dugun erreferentzia-esparruari ondoen egokitzen zaion tresna, EAEren egungo eskumenak ikusirik.

Enpresa transnazionalak ditu ardatz Zentroaren jarduerak, haien balio-kate osoa aintzat hartuta (filialak, aldi baterako elkar-teak, azpikontratak eta abar), bai eta sektore publikoaren eta pribatuaren arteko aliantzek sustatzen dituzten laguntza instituzionalak ere; lehentasuna ematen dio logika lotesleari, enpresen borondatearen gainetik. Gainera, ikuskaritza publikoa aldarrikatzen du, eta, era berean, kontu-emate demokratikoa, politika publikoak proposatzea, zehapen-erregimen bat ezartzea eta justizia eta ordaina eskuratzeko laguntza eta eskabideak hobetzea. Bestalde, zenbait gizarte-eragileren partaidetza erreala, eraginkorra eta kalitatekoa bultzatzen du, betiere giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidea oso-osorik betearaztea erreferentzia nagusi dela.

Beraz, egin dezagun bat proposamenarekin eta saia gaitezen gizarteko gehiengoaren ongizatea eta Lurraren jasangarritasuna korporazioen interesen gainetik jartzen. Geure esku dago.

E U S K A L H E R R I A K
KAPITALARI
PLANTO!